

Antzerki-testua

1. **Osatu** *Non dago muga?* antzerki-testua pasarte hauetako bakoitza dagokion lekuan idatzita.

ANDER: Lehen ez nuen askorik ulertzen, baina, orain, gaia landu dugula... Gogorra benetan!

IÑIGO: Bai!! Gure klasean denok elkar maite dugu!

ITSASNE: Aizue, bullyingari buruzko antzerki hau ez zait batere gustatzen...

(...)

ANE: Itsasne, zer nahi duzu? Antzerkia entseatzen ari gara...

.....
.....

MIKEL: Bai... Gogorra, ezta?

IRENE: Esaidazu niri, Ander!

ANDER:.....

.....

Aiora: Tira ba, bukatutzat emango dugu gaurko saioa, orduan?

IMANOL: Eskerrak klasean ez dugun horrelako arazorik izan...

.....
.....

DENOK: Elkar maite dugu!!! (...)

Iraide Urkiaga

2. Nola jarraituko du *Kanpaldia* antzerki-testuaren pasarte honek? **Asmatu.**

(...)

4. LAGUNA: Ez da barregarria...

11. LAGUNA: Egon zaitezte lasai, ez da ezer gertatuko. Etxe honek urte asko darama hutsik.

12. LAGUNA: Ni oso nekatuta nago eta laster oheratuko naiz. Gainera berandu da. (*Lo-zakua zabaltzera doa*)

13. LAGUNA: Benetan? Horretarako etorri zara? Txepela zara gero! Koldo, Miren, Nerea! Zergatik ez diguzue esaten zein den etxe honetako kondaira? Koldo: Bale, eseri zaitezte (*Koldo inguratu egiten dute*). Orain dela urte asko, etxe honetan familia bat bizi zen.

4. LAGUNA: Familia bat! Familia bat esan du! (*Lagun biri izututa*) Denak: Bai... familia bat... Koldo: Bi anai-arrebak, gurasoak eta amama. Arraro samarrak ziren, eta herriko jendearekin ez zuten harremanik, etxean ematen baitzituzten egunak. Gaez bakarrik irteten ziren. Beltzez janzen ziren, eta oso zurbil zeuden beti; hori dela eta, herrikoek esaten zuten banpiroak zirela... (...)

Gogoratu
elkarrizketak eta
akotazioak idaztea!

Cristina Soto

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....